



Aldez aurretik hitzartu:
945 041 021

Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa gure ondare historiko artistikoa gizarteari hurbiltzeko lan egiten du, umeei eta helduei zuzendutako hainbat hezkuntza programen bitartez. Helburua da **bisitatzen gaituztenei gozamenarako eta hezkuntzarako tresnak ematea**, eta horrekin batera museoa ren bilduma zabaltea.

BISITA INTERAKTIBOAK

Museoaren zenbait aretotan zehar egiten diren ibilbideak dira, gai zehatz batekin lotutako obra sorta bat ikusiz. Metodologia dinamikoa da eta artelanen aurrean egiten den elkarriketaren bidez burutzen da. Behatzea, aztertzea eta iritzia ematea proposatzen zaio ikasleari, horrela euren ondorioak ateratu ditzaten. Artelaneekin kontaktu zuzena izateko leku bat sortzea eta pertsonen arteko komunikazioa sustatzea da xedea.

Iraupena: 60 minutu

TAILERRAK

Aretoetan zehar egiten diren ibilaldiaz gain, osagarri ludikoa duen jarduerak praktikoak ere egiten dira, bisitaren gaia jorratzen duena. Sorkuntza plastikoak, arketak, objektuen manipulazioak eta rol-jokoak egiten dira.

Iraupena: 90-120 minutu

IRAKASLEENTZAKO PRESTAKETA SAIOAK

Irakasleei museoa aurkeztea du helburu eta bisita baino lehen jarduerak prestatzea, ibilbidea eta helburuak zehaztuz.

Museoa gure iraganarekin topatzeko lekua da, artelanak begiratzeko eta gure ondare artistikoa errespetatzen ikasteko.



HEZKUNTZA
PROIEKTUA



ELIZBARRUTIKO
ARTE
SAKRATUAREN
MUSEOA

MUSEO
DIOCESANO
DE ARTE
SACRO

Vitoria-Gasteiz



TAILERRAK



PINTZELKADAZ PINTZELKADA

HH, LH

Aukera ederra da museoan murgildu eta ezagutzeko nola pintatzen zuen Grecok, eta alderatzeko beste garai batzuetako estilo eta teknikekin. Haurrek ikasiko dute zer garrantzitsua den pintzelkada hainbat emaitza lortzeko, eta adierazpen tresna dela, sormen plastikoko jarduera bat egingo baitute.



SANTUAK ETA DEABRUAK

HH, LH

Ongia eta Gaizkiaren arteko borroka gai unibertsalaren bitartez artelanak ezagutzean datza. Ibilaldian zehar hainbat munstro eta deabrudun izaki ikusten dira, baita santuak eta beren sinbolo eta ikurrak ere. Gero sorkuntza plastikoko ariketa bat dator: santu bat eta deabru bat egin behar da, kartoiarekin, margoekin eta kolore eta egitura ezberdineko paperekin.



MUSEOA ETA GABONAK

HH, LH

Gabonak museoko hainbat artelanetan daude irudikaturik. Tailerrean bi jarduera egiten ditugu: museoan zehar ibilbide bat, gabonetako gaia duten margolanak deskubritzeko, eta sormen plastikozko ariketa bat. Azken honetan museoan ikusi ditugun artelanetako irudiekin Jaiotza bat egiten dugu. Hainbat material izango ditugu horretarako, irudimenak mugarik izan ez dezan.



ERRETAULAREN TAILERRA

LH, DBH

Museoko erretaula garrantzitsuenak ikusi ondoren, rol joko bat egiten da eta bertan erretaula bat eraikitzekeko prozesua ikasten da. Artistek eta artisauek erretaula baten puzzle haundi bat eratu behar dute. Lan honen zailtasunak erakustea da helburua eta talde lana sustatzen du.



IKUSI-MAKUSI

LH, DBH

Katedrala era ludiko batean ikusteko egindako tailerra, bisitariak esploratzaile bihurtuz. Argazki zaharren bitartez eraikin honen historia aztertzen da, eta ondoren bere hormako eskulturak miatzen dira beren mezua ulertzeko. Gure inguru hurbileko ondare historikoarenganako interesa piztea da tailer honen helburua.

BISITA INTERAKTIBOAK

Harri bat, enbor bat, taula bat eta mihise bat

HH, LH, DBH

Kontaktu bisita bat da, museo bat zer den ikasteko.

Artea Erdi Aroan / Artea Aro Berrian

DBH, Batxilergoa

Arte Erromanikoa, Gotikoa, Errenazimendua eta Barrokoaren formak eta esanahiak aztertzen dira.

Formen analisisa

DBH, Batxilergoa

Artelan bat ulertzen ikasteko bisita; argia, konposizioa, materialak, kolorea eta gehiagotan erreparatuz.

Sinesmenak irudien bitartez

LH, DBH

Bisita hau gaietan, ikonografian eta artelan horiek sortu zituzten pertsonen pentsamoldeetan zehar egiten da.

